

GUTAZ GEHIAGO JAKITEKO

Batxilergoko proiektu honen bidez, El Regato Ikastetxeko 16 urteko bi ikaslek ekintzailatza-proiektu baten diseinua aurkezten dugu, helburu nagusi batekin, hona emen, jendeak jada erabiltzen ez duen arropari bizitza berri bat ematea. Proiektu hau sortzeko arrazoia gaur egungo modaren industriak sortzen dituen ingurumen- eta gizarte-arazoak dira, bereziki gehiegizko kontsumoak eta hondakinen sorrera etengabeak eragindakoak. Gure ustez, moda ez da soilik estetikari lotutako jarduerara; adierazpide sozial eta kultural bat ere bada, eta modu arduratsuagoan garatu daiteke.

Proiektu honen bidez, moda sortzailea, eskuragarria eta jasagarria izan daitekeela erakutsi nahi dugu. Gainera, gure belaunaldiak, gaztea izan arren, aldaketa positiboak sustatzeko gaitasuna duela defendatzen dugu. Horregatik, ekintzailatza, sormena eta jasagarritasuna uztartzen dituen ideia bat garatu dugu, hezkuntza-ingurunean landu eta aztertzeko modukoa.

PROIEKTUAREN IDEIA ETA OINARRIA

Gaur egun, jantzi asko baztertzen dira oraindik erabilgarri egon arren, joera berriak agertzen direlako edo kontsumo azkarraren ondorioz. Egoera horren aurrean, gure proiektuak arropa horiek berreskuratzea proposatzen du, berrerabili eta diseinu berriak sortuz. Helburua ez da arropa zaharra zuzenean saltzea, baizik eta ehuna daukan arropa horiekin beste prendak sortzea, sormen-prozesu baten bidez balio erantsia emanez.

Sortzen dugun jantzi bakoitzak bigarren aukera bat du, eta horrek jasagarritasunaren ideia indartzen du. Gainera, pieza bakoitza bakarra izateak kontsumo arduratsua sustatzen du, ekoizpen masiboaren aurrean alternatiba gisa.

KOKAPENA ETA TESTUINGURUA

Proiektua Euskal Herrian kokatzen da, Bilbon zehazki. Etorkizunera begira, Bilboko Alde Zaharrean denda fisiko bat irekitzeko aukera aztertzen dugu, auzo horrek duen nortasuna, historia eta kultura gure proiektuaren balioekin bat datozelako. Hala ere, Batxilergoko proiektua denez, planteamendu hau teorikoa da, eta azterketa akademiko gisa lantzen da.

Testuinguru horretan, tokiko merkataritza, jasagarritasuna eta komunitatearen garrantzia azpimarratzen ditugu, gure ideiarenekin oinarri nagusi gisa.

HELBURU NAGUSIAK

Proiektuaren lehen urte hipotetikorako, hainbat helburu ezarri ditugu, bai ikuspegi ekonomikotik bai sozialetik.

Lehenik eta behin, gutxienez 500 jantzi bildu eta berrerabiltzea dugu helburu, horrela arropa-hondakinen kopurua murriztuz eta birziklapena sustatuz. Bigarrenik, arropa birziklatuz egindako hainbat bilduma txiki diseinatzea aurreikusten dugu, diseinu-prozesua eta sormena lantzeko aukera emanez. Hirugarrenik, moda jasagarria gazteen artean erakargarria izan daitekeela erakutsi nahi dugu, komunitate gazte eta konprometitua sortuz. Laugarrenik, 150 eta 300 pieza artean saltzea planteatzen dugu, proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko eta oinarritzko kontzeptu ekonomikoak lantzeko. Azkenik, jasagarritasuna, birziklapena eta gazteen ekintzailatza sustatzen dituzten denda, enpresa edo erakundeekin lankidetzak proposatzen ditugu, sare-lana eta gizarte-inplikazioa balioan jarritz.

MARKETINA ETA KOMUNIKAZIOA

Proiektua ezagutarazteko, sare sozialen erabilera funtsezkoa izango da. Horretarako, Instagram eta TikTok bezalako plataformetan kontuak sortzea aurreikusten dugu. Sare horien bidez, gure proiektua aurkeztuko dugu, eduki sortzaileak partekatuko ditugu eta inkestak egingo ditugu, jarraitzaileen iritzia ezagutzeko.

Horrela, bezeroak eta jarraitzaileak proiektuaren parte senti daitezen lortu nahi dugu, eta aldi berean irudi profesional eta koherente bat transmititu. Gainera, jasotako iritziei esker, gure produktuak eta proposamenak hobetu ahal izango ditugu, erabiltzaileen beharretara egokituz.

BALIOAK ETA IKASKUNTZA

Proiektu honek hainbat balio lantzeko aukera ematen digu: jasangarritasuna, kontsumo arduratsua, sormena, talde-lana, ekintzailatza eta gizartearekiko konpromisoa. Batxilergoko mailan, garrantzitsua iruditzen zaigu ezagutza teorikoa praktikan jartzea, eta proiektu honek aukera hori eskaintzen du.

Ondorioz, lan honen bidez, ez dugu soilik marka baten ideia aurkezten, baizik eta pentsatzeko eta kontsumitzeko beste modu bat proposatzen dugu, modaren bidez gizartean eragin positiboa izan daitekeela erakutsiz.